



BOOKTEGI

galtzerdi  
gorriak  
parpaila  
urratua

EMILIA PARDO BAZÁN

itzulpena:  
Izaskun  
Etxebeste  
Zubizarreta

Báñez  
09



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

EMILIA PARDO BAZÁN

**galtzerdi gorriak**  
**parpaila urratua**

itzulpena:

Izaskun Etxebeste Zubizarreta

## Hitz bi egileari eta narrazioei buruz

Emilia Pardo Bazán idazle galiziarra figura bitxi eta sailkaezina da Espainiako literaturan. Emakume sortzaileak ia ikusezin ziren garai batean bere ibilbide literario eta intelektuala —eta pertsonala— ezartzen asmatu zuen, xix. eta xx. mendeen arteko gizartearen muga eta arauen gainetik.

Baitezpadakoak izan zituen horretarako talentu handi berezkoa, jakin-min intelektual bizia eta nortasun suharra, baina baita jatorrian markatu zuten beste bi ezaugarri ere: familia aristokratiko batean sortzea, eta aitak ideia aurrerakoiak izatea emakumezkoen heziketari buruz. Baldintza horien eraginpean, Pardo Bazáneko kondearen alaba bakarrak (A Coruña, 1851-Madril, 1921) heziketa oparoa eta zaindua jaso zuen txikitatik historia-, filosofia- eta literatura-gaietan; hizkuntzak ere ikasi zituen, eta, gerora Europan egindako hainbat bidaia eta egonalditan trebaturik, frantsesa, ingelesa eta alemana menderatzera iritsi zen. Etxean eskura izan zuen beti aitaren liburutegi zabala, eta oso gaztetatik erakutsi zuen idazteko zaletasuna.

Jatorri aberatsekoa izateak, bestalde, arlo pertsonalean erabakiak hartzea ahalbidetu zion. Hamazazpi urte osatu gabe ezkondu zen, kapare-familien arteko ohitura sozialei zegokien eran, eta hiru seme-alaba izan zituen; emazte-bizitzak, ordea, ez zion eragotzi idazten eta argitaratzen jarraitzea, eta, artikulua-bilduma batek sorturiko polemikak ikaratuta, senarrak idazteari uzteko eskatu zionean etsi ez zuenez, banandu egin ziren senar-emazteak, gatazkarik gabe. Orduan areagotu zen Pardo Bazán emakume askearen jarduera intelektual, kultural eta soziala.

Eleberriak eta saiakerak dira Pardo Bazánen lan nagusiak, baina egunkari eta aldizkarietan erruz argitaratu zituen lan laburragoak ere: bidaia-kronikak, iritzi-artikuluak, dibulgazio-lanak eta narrazioak. Bere garaiko gizartean presentzia oso aktiboa izan zuen, hitzaldiak ere emanez edo argitaratze-egitasmoak bultzatuz.

Ez zuen sekula galiziera erabili kultura-hizkuntza gisa; harentzat galegoa ez zen herri-hizkuntza soil bat besterik, lurrari eta etxeari erabat atxikia eta herri xehearen hizkera erakustera edo, urrunenik ere, herri-literaturara soilik mugatu behar zuena.

Aipatu ditugun bidaia eta egonaldietan harreman ugari izan zuen Europako intelektual eta idazleekin. Aitzindari izan zen, horrela, naturalismo frantsesari buruzko eztabaida Espainian sartzen eta literatura errusiarra estatuan ezagutzera ematen. Gizarte espainolak modernizatzeko premia larria zuela aldarrikatu zuen bere obra guztietan.

Berebat jaso zituen, eta plazaratu, feminismoari buruz Frantzian eta Britainia Handian zebiltzan ideiak, emakumeak eskolatzeak zuen garrantzia azpimarratuz. Genero-kontzientzia indartsu baten jabe egin zen, eta nekaezin jardun zuen emakumeen eskubideen alde. Berak esanak dira, esate baterako: «Emakumeek jasotzen dutena ez da heziketa, ezpada bezatzea, helburua direlarik obedientzia, pasibotasuna eta mendetasuna», edo «Emakume guztiek sortzen dituzte ideiak, baina guztiek ez dituzte sortzen seme-alabak. Gizakia ez da uzta emateko soilik landatzen den fruitu-arbola bat» edo «Ni feminista erradikala naiz; uste dut gizonezkoek dituzten eskubide guztiak izan behar dituztela emakumezkoek ere». Berari ere, pribilegiaduna izan arren —*Pardo Bazán*eko *kondesa* izenaz sinatzen hasi zen titulua eskuratu orduko—, gogor borrokatzea tokatu zitzaion arlo publikoan erdietsiriko lekua aitor ziezaioten. Ez zuen lortu Espainiako Errege Akademian onartzea, baina bai, ordea, Madrileko Ateneoko literatura-sailaren lehen buru emakumezkoa izatea edo hiri bereko Unibertsitate Zentralean katedra bat eskuratzea.

Narrazio gintzara etorriz, seiehun kontakizun edo narraziotik gora idatzi zituen 1833. eta 1922. urteen artean, idazleak berak gero hamabost liburukitan bildu zituelarik haietarik asko.

Hona ekarri ditugun biak haren heldutasun garaian idatziak dira: 1915ean «Galtzerdi gorriak» eta 1897an «Parpaila urratua».

Etxe barruan iragaten da bata, ekitaldi publiko batean bestea. Emakumezkoak dira bi-bietako protagonistak, landa aldekoa bata, hiri girokoa bestea; txiroa bata, aberatsa bestea. Biek ala biek adierazten dute beren erabakiak hartzeko asmoa, beren buruen jabe izatekoa, eta ezarritako ordena hausten duen une horrexek markatzen du bi narrazioen gakoa. Zeren, Emilia Pardo Bazánen idazlanetan behin eta berriro agertzen den gaia baita bi kontakizun hauetakoa ere, gordinki erakutsia batean, iradokia baino ez bestean: gizonezkoek emakumezkoen kontra erabiltzen duten indarkeria.

## Galtzerdi gorriak

Neskatxa sartu zenean, bizkarrean hartuta nagusi jaunaren mendian abar-miaketan bildu berri zuen sorta-egurra, Clodio zaharrak ez zuen burua jaso, zigarro bat xehatzeko lanari emana baitzegoen, labanaren ordeaz erabiliz azazkal adarkara bat, anbar ilunaren kolorekoa, agortu arte erretako zigarro-mutxikinen suak txigortua.

Ildarak zama lurrean utzi, eta ilea antolatu zuen; *señoriten* modara orraztua zeraman eta katigatzen zitzaizkion adaxkek nahasia. Ondoren, landa aldeko zereginen moteltasunaz, sua prestatu zuen, piztu, aza-hostoak puskatu eta lapiko beltzera bota zituen, trakets kraskatutako patata batzuen konpainian eta, aurreko uztakoak izanik ere, beratzen jarri gabeko baba aski idor batzuenen. Lantegi hauek amaitzerako, Clodio zaharrak bildua zuen zigarroa, eta baldar samar zuputzen zuen, masailetan sortuz bi zulo hustubideen tankerakoak, grisak, bizar narrasen urdinaren artean.

Egurra hezea zegoen, inondik ere, aste osoan ez baitzuen atertu, eta ez zuen ongi su hartzen; usain mineko ke-laino bat ateratzen zuen, baina gizona ez zen ohartu ere egiten: utikan kea! ohitua zegoen umetatik. Ildara putz egitera makurtu zelarik garra bizkortzeko, egundo ikusi gabekoa ikusi zuen agureak: kolore biziko zerbait, neskatxaren zaia adabatu eta blaituen artean ageri zena... Zango mardul bat, galtzerdi gorri kotoizko batez estekatua...

—Aizan, Ildara!

—Jauna!

—Ze nobedade da hori?

—Zein nobedade?

—Orain galtzerdiak ibiltzen al ditun, erretorearen arrebak bezala?

Zutitu zen neska, eta lapikoaren sabel beltza milikatuz goratzen hasitako sugar urrekarak argiztatu zuen haren aurpegi biribil polita, hazpegi txikikoa, aho desiragarri bat eta bizi-gosez beteriko begi-nini argi batzuk zituena.

—Ibiltzen ditut, bai, ibiltzen ditut galtzerdiak —errepikatu zuen kikildu gabe—. Eta ibiltzen baditut, ez dizkiot inori ere zor.

—Mendian sortzen ditun, orduan, sosak —jarraitu zuen Clodio zaharrak larderiazko burlaizez.

—Ez dira sortzen!... Arrautza batzuk saldu nizkion erretoreari, ez du berak kontrakorik esango... Eta horrekin feriatu nituen galtzerdiak.

Hirazko argi-izpi batek gurutzatu zituen nekazariaren begi txikiak, bekain zurdatsuen azpiko betazal gogorretan sartuak... Erdi etzanean zegoen eserlekutik jauzi egin, alabari besaburuetatik heldu, eta, basaki astinduz, paretaren kontra bota zuen:

—Engainari halakoa! Engainari halakoa! Loka zauden oiloak, ez diten erruten! —murduskatu zuen.

Aurpegia eskuez babesten zuen Ildarak, minaren minez garrasi ez egiteko hortzak estututa. Huraxe zen neskatila eder eta losintxatua izateak beti eragiten zion beldur nagusia, aitak mankatzea, lehengusu Mariolari gertatu zitzaion bezala, bekokian markatua utzi baitzuen amak, galbahe-uztaiarekin ehunak zarrastatuta. Eta are gehiago defendatzen zuen orain bere edertasuna, hartan oinarrituriko etorkizun-ametsaren unea hurbiltzen ari zenez. Adin nagusikoa zen jada, aitaren aginpidetik aske zegoen, eta esperoan zuen itsasontzi bat, bere barrunbeetan hainbat eramanak zituena bere parrokiatik eta ingurukoetatik zorte bila, ezezagunaren bila, lurralde urrun haietara, non urrea piririka ibiltzen baita kaleetan eta jaitsi baino ez baita egin behar jasotzeko. Aitak ez zuen atzerrira joan nahi, laborari bizialdiaz nekaturik, itxaropen berantiarraz ezaxola: gera zedila aita, bada!... Bera bazihoan, ziur; tratua egin zuen *gantxo*arekin, hark aurreratuko zizkion pesoak bidaiarako, eta emanak zizkion bost ere seinale gisa, zeinetatik atera baitziren zorioneko galtzerdiak... Eta Clodio zaharrak, maltzur, zoli, igarle edo jakitun, neskatxa hormaren kontra hesitzeari eta jazartzeari utzi gabe, hala zioen behin eta berriz:

—Aspertu al haiz oinutsik eta zango-hutsik ibiltzeaz errespetuzko emakumeen gisan, malapartatu hori? Eraman al zuen inoiz galtzerdirik hire amak? Orraztu al zen inoiz hi bezala, beti hor ari haiz-eta jo eta su ispilu pusketa hartuta? Ton!, ondo akordatzeko...

Eta ukabila estuturik, burua zauritu zuen lehenik, eta aurpegia gero, apartatuz neskatxaren eskutxo ikaratuak, lanak oraindik forma hondatu gabekoak, dardara batean lldarak bere burua babesteko ipini zituenak. Zaplada bortitzenak begi bat jo zuen, eta neskatilak zeru izartsu halako bat ikusi zuen, milaka puntu distiratsu, kolore bizizko irradatan bilduak eta atze beltz beluskara batean ezarriak. Ondoren, laborariak sudurra zafratu zuen, eta matrailak. Amorrualdi bat izan zen, eta bertan akabatuko zuen eskrupulurik gabe, alaba alde egiten ez ikusteko, bera han utzita, bakarrik, alargun, errentan hartutako lur hura lantzeko ia ezindurik, bere izerdiaz hainbeste urtean emankor bihurtutako lur hura, zentzugabeki, mekanikoki maite zuena. Utzi zion, halako batean, jotzeari; lldarak ez zuen garrasi ere egiten ordurako, izuaren izuaz sorgorturik.

Kanpora atera zen neska, isil-isilik, eta ondoko errekaetan garbitu zuen odola. Hortz polit eta gazte bat geratu zitzaion eskuan. Min hartutako begitik ez zuen ikusten.

Halako moldez, non medikuak, galdea beranduegi eta gogo txarrez egin zitzaionak, laborariak ohi duten eran, erretina-askatzea aipatu baitzuen, eta, neskatxak ulertu ez bazuen ere, horrek esan nahi baitzuen... begibakar geratzea.

Eta inoiz gehiago ez zuen itsasontziak neska hartu bere sakonetan, olgetazko eta luxuzko etorkizun berri batera eramateko. Hara doazkeenek osasuntsu joan behar dute, gauza direla, eta emakumeak, begiekin argi emanez eta hortz-hagin guztiak dituztela...

## Parpaila urratua

Micaelita Aranguizen eta Bernardo de Meneses en ezteietara gonbidatu nindutelarik, eta, gajoa ni, bertaraterik izan ez nuelarik, ezusteko handia hartu nuen biharamunean —zeremonia iluntzeko hamarretan ospatzekoa zen, andregaiaren etxean— jakin nuenean ezen andregaiak,

Bernardo senartzat hartzen ote zuen San Juan de Acreko apezpikuak galdegin zionean, *ezezko* biribil eta ozen bat bota zuela aldarearen oinean berean; eta, harrituta berriro galdegin zitzaionean ezezkoa errepikatu zenez, senargaiak, inoizko egoerarik lotsa-emangarrienari ordu laurdenez buru egin ondoren, alde egin behar izan zuela, eta bilkura eta ezkontza, biak bertan behera geratu zirela.

Ez dira ezezagunak halako kasuak, eta irakurri ohi ditugu egunkarietan; baina klase xeheko eta egoera oso apaleko jendearen artean gertatu ohi dira, egiune sozialek norberaren sentipena eta borondatea tolesik gabe eta natural adieraztea oztopatzen ez duten eremuetan.

Jokagunearen ingurumenak ematen zion berezitasuna Micaelitak eragindako eszenari. Irudika nezakeen koadroa, eta ez nuen kontsolamendurik neure begiez ezin ikusi izan nuelako. Imajina nezakeen aretoa jendez gainezka, gonbidatu aukerakoak, emakumezkoak zetaz eta belusez jantzirik, harribitxizko lepokoekin, mantelina zuria besoan, zeremoniaren unean burua estaltzeko; gizonetzkoak intsignia distiratsuekin, edo frakaren paparrean ordena militarren xingolak agerian; andregaiaren ama, biziki dotore, lanpetua, arretatsu, taldez talde, zorionak jasoz; ahizpa txikiak, hunkituta, apain-apain, arrosa kolorez zaharrena, urdinez gazteena, harro erakutsiz turkesazko besokoak, koinatugaiak oparituak; ezkontza bedeinkatzera doan apezpikua errespetuz eta adeitasunez berriketan batekin eta bestearekin, irribarretsu, txantxa samurrak edo laudorio neurritsuak botaz, eta atze-atzean, han sumatzen dela otoiztegiko misterioa, loreztaturik, arrosa zurizko uholde bat, hasi zorutik eta kupulatxorainokoa, bertan batzen direlarik arrosazko eta lilazko lore-erradio batzuk, elurraren gisakoak, artistikoki ipinitako abar berdeetan ezarriak; eta aldarean, etxandi aristokratikoaren babesle den Ama Birjinaren irudia, erdi ezkututzen duela azahar-lorezko errezel batek, Aranguiz etxejabe txit aberatsak Valentziatik azahar-lorez beterik bidalitako konpartimentu baten edukiaz egindakoak, nahiz jaun hura bera, andregaiaren osaba eta aitabitxia zena, ez zen etorri, aguretua eta ajeatua zegoelako —xehetasun horiek dabilta ahoz aho, eta kalkuluak egiten dira Micaelitari egokituko zaion ondare bikainari buruz, zorion-itxaropena zabaltzen baitie eztei-bidaian Valentziara joango diren senar-emazteei—. Senargaia gizon-talde batean irudika nezakeen, urduri antzean, zurbil samar, biboteari nahigabe hoxkaka, egiten dizkioten trufa finei eta esaldi lausengariei erantzuteko burua makurtuz...

Eta azkenik, barruko geletara ematen duen ateko markoan azaltzen ikus nezakeen agerkunde halako bat, andregaiā, hazpegiak doi-doi hautematen zaizkiola tularen hodeixka azpian, jantziaren zetari zirrist-zarrast eginaraziz pasatzen dela, eta ilean, ihintzez ziprztindurik bezala distira egiten diola diamante-harrizko ezkon-apaindurak... Eta antolatzen da jada zeremonia, aurrera doa bikotea aitabitxi-amabitxiak lagundurik, belaunikatzen da figura xaloa senargaiaren irudi segail eta airosaren ondoan... Metatzen da aurrenik familia, adiskide eta kuxkuxeroak begitatzeko leku on baten bila, eta bildurikoen isiltasunaren eta errespetuzko arretaren artean... egiten du apezpikuak galdera bat, zeinari erantzuten baitio *ezezko* batek, tiro bat bezain idor, bala bat bezain zorrotz. Eta —irudimenarekin betiere— suma nezakeen senargaiaren higidura, nola iraultzen den zauriturik; amaren oldarra, nola lasterkatzen den alabari laguntzera eta babes ematera; apezpikuaren errepikapena, harriduraren ondorio; bertaratuen zirrarā, segundo batean jaulkitako galderaren herstura: «Zer da? Zer gertatu da? Andregaiā gaizkitu egin al da? *Ezetz* esan duela? Ezinezkoa... Baina ziurra al da? Hau da hau gorabehera!...».

Gizarte-bizitzaren barruan, egundoko drama da hau guztia. Eta Micaelitaren kasuan, drama izateaz gainera, logogrifoā ere izan zen. Sekula ez zen benetan jakin bat-bateko ezezko haren arrazoia.

Hau besterik ez zuen esaten Micaelitak: iritziz aldatu zuela, eta burujabea zela askatasun osoz atzera egiteko, baita aldare aurrean ere, bere ahotik *baiezkorik* irteten ez zen bitartean. Etxekoen adiskide minenek garunak estutzen zituzten eta itxuragabeko susmoak adierazten zituzten. Zorigaitzoko une hartara arte, guzti-guztiek ikusi zituzten senar-emaztegaiak ezti-goxotan eta pozik, horretan ez zen zalantzarik; eta eskandalua baino minutu batzuk lehenago andregai apaindua begiestera sartu ziren neska-lagunek ere esan zuten pozak zoratzen zegoela orduan, eta ilusioz eta kontentuz hain beterik, non ez baitzukeen beste inoren lekuan egon nahi. Datu hauek areago iluntzen zuten enigma bitxi hura, luzaroan faboratuz esamesak, misterioak kitzikaturik eta argibide makurrak topatzeko prest betiere.

Handik hiru urtera, Micaelitaren ezteietako pasadizoaz ia inor oroitzen ez zenean, bere amak urak hartzen zituen bainuetxe modako batean egin nuen topo harekin. Ez da harremanak errazten dituen gauza hoberik bainuetxeko bizimodua baino, eta Aránguiz andereñoā hain egin zen nire adiskide min, non arratsalde batez, eliza aldera pasieran gindoazela, bere sekretua

jakinarazi baitzidan esanez baimentzen ninduela hura zabaltzera, halako azalpen sinple bat inork sinetsiko ez duelako uste osoan.

—Txorakeria bat izan zen... Hainbestekoa, non ez bainuen kontatu nahi izan; jendeak beti kausa sakon eta transzendentalei egotzi ohi dizkie gertakariak, ohartu gabe askotan umekeriek finkatzen dutela gure patua, *huskeriarik* hutsalenek... Nolabaiteko esanahia duten huskeriak dira, ordea, eta zenbaitentzat, esanguratsuegiak. Hara zer gertatu zen; eta ezin dut ulertu nolatan ez zen inor konturatu, han bertan izan baitzen, guztien aurrean; oharkabean pasatu zitzaizen, besterik gabe, kontua amen jesus batean iragan zelako.

»Badakizu Bernardo de Menesesekin egin behar nuen ezkontzak, itxuraz, zoriontasunerako baldintza eta berme guztiak betetzen zituela. Aitortzen dut, gainera, oso gustukoa nuela senargaia, ezagutzen nuen eta ezagutzen dudan edozein gizon baino gustukoago; maitemindurik nengoela uste dut. Atsekabetzen ninduen gauza bakarra zen haren izaera aztertzeke ezintasuna: zenbaitek bortitza zela irizten zioten, baina nik beti atsegin ikusten nuen, adeitsu, eskularru bat bezain beratz, eta errezelotan nengoen ez ote zituen itxurak egiten ni engainatzeko eta aiurri basa eta ozpindu bat ezkutatzeko. Mila eta bat bider madarikatzen nuen emakume ezkongabearen mendetasuna, arras nekeza baita halakoarentzat senargaiaren urratsak jarraitzea, errealitatearen sakonera iristea eta berri zintzoak jasotzea, egia gordinenak (lasaituko ninduketen bakarrak). Ahalegindu nintzen Bernardori zenbait proba jartzen, eta gainditu zituen guztiak; haren jarrera hain izan zen zuzena, ezen sinestera heldu bainintzen inolako beldurrik gabe utz nitzakeela haren eskuan nire etorkizuna eta nire zoriona.

»Iritsi zen eztei-eguna. Normala den emozioak hartua nengoen arren, soineko zuria janzerakoan berriro erreparatu nion apaingarri zuen parpailazko hegal apartari. Senargaiak oparitu zidan benetako Alençon<sup>1</sup> zahar hura, bere familiarena izandakoa, kana-heren zabal zena (guztizko zoragarria), diseinu dotorekoa, ezin hobeki kontserbatua, museo baten erakusleihoan egoteko modukoa. Bernardok opari egin zidanean, haren balioa famatuz egin zuen, eta artegatu ere egin ninduen horrek, zeren, parpaila oso baliotsua izanagatik, nire gizongaiari gutxitxo iruditu behar litzaioke niretzat.

»Une solemne hartan, soinekoaren satin sarriak parpaila are ederragoturik ikustean, iruditu zitzaidan brodatze-lan txit delikatu hark zorion promesa adierazten zuela eta aldi berean hain hauskorra eta hain sendoa zen ehun hark sare finez katigatzen zituela bi bihotz. Amets hark liluratuta nindukan aretorantz abiatu nintzenean; atean zain nuen senargaia. Agurtzera pozaz zoraturik lastertu nintzenean, gorputzez eta arimaz berea izan aurretik azken aldiz, ateko burdina batean trabatu zen parpaila, halako zorte txarrez, non, askatu nahi nuelarik, tarratada baten hotsa entzun bainuen eta ikusi ahal izan bainuen apaingarri paregabearen piltzar bat dilindan zegoela gonaren gainean. Baina beste gauza bat ere ikusi nuen: Bernardoren aurpegia, den suminik bizienak uzurtua eta desitxuratua; begiak diz-diz, ahoa erdi irekia prest agiraka eta irainka hasteko... Ez zen hartaraino iritsi, jendez inguraturik zegoelako, baina istant labur hartan oholtza bateko oihala jaso zen eta biluzturik azaldu zen atzean arima bat.

»Zirkinen bat egin bide nuen; beharrik beloaren tulak estaltzen zidan aurpegia. Zerbait kraskatzen eta apurtzen ari zen nire barnean, eta aretoko ate-brinbela gurutzatu nueneko bozkarioa lastura sakon bihurtu zen. Aurpegian antzeman berri nion hirazko eta erdeinuzko espresio gogor harekin irudikatzen nuen Bernardo betiko; uste oso horrek harrapatu ninduen, eta beste bat etorri zen harekin batera: ezin niola eman, ez niola neure burua eman nahi gizon hari, ez orduan ez inoiz ere... Eta, halaz guztiz, aldarera hurreratuz joan nintzen, belaunikatu nintzen, entzun nituen apezpikuaren aholku-hitzak..., baina galdera egin zidanean, egia jaulki zitzaidan ezpainetatik, oldarrez, beldurgarri...

»*Ezezko* hura nik nahi gabe jariatzen zen; neure buruari ari nintzaion... guztiek entzun zezaten!

—Eta zergatik ez zenuen benetako arrazoia adierazi, hainbeste zurrumurru zabaldu zirelarik?

—Berriro diot: sinpleegia zelako, berez... Ez zuketen sekula sinetsiko. Nahiago izan nuen pentsa zezaten bazirela serio deritzen arrazoi horietarik...

1 Normandiako herri bat da Alençon, bertan eskuz egiten diren parpailen kalitateagatik ezaguna dena (Itzultzailearen oharra).